

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburu Ordea

Beñat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar  
Jose María Herce Isasmendi  
Igor Ezpeleta Oregi  
Maider Landa Ruiz de Azua  
Aitor Urrutia Oianguren  
Iñaki Madinabeitia Elorza  
Rosario Arkauz Arkauz  
Juan Luis Merino Sanabria.  
Jose Luis Cantero Morcillo

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamahiruko irailaren 24an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beñat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udaltzarrak, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiak buruz hitz egiteko. Ez da etorri Petralanda jauna.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 25 de junio de 2013, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beñat Herce Leceta, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste el Sr. Petralanda.

## 1. 1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Euskarara itzuli gabe daudelako, ez da aurkeztu aktarik onartzeko.

## 2. ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2013ko irailaren 20ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Ondoren transkribatzen den erabakien berri eman da berriaz:

### ALKATEAREN ERABAKIA

**ZENBAKIA:** B 13/00974

**DATA:** 2013/09/19

**GAIA:** KREDITU ALDAKETA. ZKIA:16. K.GEHIGARRIAK

**ESPEDIENTEA:** 2013KKRA0013

**GAIA:** Kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako 16. espedientea onartzea

UDAL honetako Aurrekontuari eragiten dion Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea ikusita.

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAK egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Aurreko guztia kontutan izanik, eta Foru Arauaren 34.3 artikuluan eta 2013ko ekitaldirako onartutako Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren 6-1 artikuluan jasotako eskumenak erabilita, Alkate naizen honek honako hau

### ERABAKI DA

**Lehena.**- UDAL honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

#### KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak	5.500,00
<b>GEHIKUNTZAK GUZTIRA...</b>		5.500,00

#### FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	GEHIKUNTZAK
8	Finantza Aktiboak	5.500,00
<b>GUZTIRA</b>		5.500,00 €

**Bigarrena.**- Udal Batzarrari hurrengo bileran erabaki honen berri ematea.

Eskoriatzan, 2013ko irailaren 19an.  
ALKATEA

### **3. GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.**

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta ondorengo gai hauek gai zerrendan sartzea berretsi da:

ZINEGOTZI KARGUA HARTZEA: MAIDER LANDA RUIZ DE AZUA ANDREA.

KIROL JARDUEREN ZERBITZUA KUDEATZEKO KONTRATUA ALDATZEA.

ARIZMENDI KOOP. ELK. JARRITAKO BERMEA ITZULTZEKO ESKAERA.

15. KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.

### **4. ZINEGOTZI KARGUA HARTZEA: MAIDER LANDA RUIZ DE AZUA ANDREA.**

Udalbatzarrari jakinarazi zaió Maider Landa Ruiz de Azua andreak, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 75. artikuluan aurreikusitakoa betez, ondare ondasunen, balizko bateraezintasun kausen eta diru sarrerak eman ditzaketen jardueren aitortpena egin duela dagokion interesen erregistroan inskriba daitezen; eta horrela, zinegotzi kargua hartzeko legezko tramiteak beteta, Udalbatzarrak Maider Landa Ruiz de Azua andreari bere kargua eman dio.

**Merino jaunak eskatuta, Alkateak gai zerrendako ordena aldatu du eta eztabaidatzeko eta bozkatzeko ekarri ditu Ezker Anitza-IU taldeak aurkeztutako mozioak.**

### **5. EZKER ANITZA-IU-K AURKEZTUTAKO MOZIOA HAUSTURA HIDRAULIKO EDO FRACKING TEKNIKA GAITZESTEKO.**

Juan Luis Merino jaunak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

#### **ARRAZOIEN AZALPENA**

Haustura hidraulikoa edo frackinga, ezohiko gasa erazteko teknika bat da; gaur egun zalantza asko eragiten du teknika horrek, pertsonen osasunarengan eta ingurumenean izan dezakeen eraginagatik, bai nekazaritza-erabileran, eta bai natura-ingurunearekin lotutakoetan; batez ere, lurpeko ur-geruzak kutsatzeko benetako aukera dagoelako, eta horietatik hasita, baita lurrazaleko ura ere, teknika honetan ezinbestekoak diren produktu toxikoak eta kutsagarriak injektatzen direlako. Gainera, arrisku geologikoen arloko segurtasuna mehatxatzen du, gerta litezkeen mugimendu sismikoak direla-eta.

Halaber, fracking teknika erabiltzen denean lur-eremu handiak okupatzen dira; ustiapena eraginkorra izan dadin, putzu asko egin behar direlako; kutsatutako ura biltzeko baltsak sortu behar direlako; eta gasa garraiatzeko zisterna-ibilgailu asko ibili behar direlako bertatik. Garapen eredu horrek eragin larriak izango ditu landa-inguruko jardueretan, hala nola: nekazaritzan, abeltzaintzan eta turismoan; eta ingurumenean ere eragina izango luke.

Aipatu ditugun eragozpen horien eraginez frackinga ez da bateragarria Europak garapen iraunkorreko eredurako proposatzen dituen helburuekin, eta hainbat arau urratzen du, bereziki Uraren Esparru Zuzentaraua. Europar Legebiltzarreko Ingurumen, Osasun Publiko eta Segurtasun Batzordeak egindako txosten batean adierazten da teknika horren erabilera zer arrisku sor dezakeen; halaber, jasotzen da, hori dela eta, Europar Batasuneko zenbait estatuk luzamendua edo debekua onartu dutela. Espainian, Kantabriako Autonomia Erkidegoan eta Errioxan jada egin dituzte legeak frackinga debekatzeko, eta helburu hori bera duten beste lege-proposamen batzuk ere bideratzen ari dira.

Horregatik guztiagatik, Euskadin ikerketa egiteko baimen-eskaerek gizartean eragin duten erantzuna dela-eta; esan dezakegu, egun gizartean kezka handia dagoela, ezohiko gasa erazteko teknika hori abian jartzeak dituen

arriskuei dagokienez; izan ere, gure lurraldean teknika hori ezarriko balitz, gure autonomia erkidegoari konpondu ezinezko kaltea eragingo lioke, bereziki pertsonen segurtasunari eta gure identitate-zeinu nagusienetakoa den natur ondareari.

Eragindako udalek frackingik gabeko eremu izendatu dituzte haien udalerriak, hala egin dute Arabako ia udalerriz guztiak, izan ere, Araba da teknika horren mehatxua gehien pairatu duen lurraldea. Gainera, herritar ugari eskatu dio Eusko Legebiltzarrari teknika hori debekatzeko, herri ekimen legegileen bidez.

Egoera honen aurrean, gogorazi behar da Euskal Autonomia Erkidegoak baduela eskumena jarduera hau arautzeko eta luzapena erabakitzeko, zuhurtasun-printzipioarekin bat. Alabaina, PNV, PSE, PP eta UPyD taldeek Eusko Legebiltzarrean ez dute frackinga debekatu nahi izan, ezta babestutako eremuetan ere; eta eragindako udalerrietan talde politiko horiek beroiek hartutako jarreraren aurka egin dute. Halaber, Espainiako Gobernuak gai horri buruzko herri galdeketa bat egitea ere debekatu du Kuartangoko udalerrian.

Azaldutako guztiagatik, Udalbatzak ondorengo akordioa hartzen du:

#### AKORDIOA

LEHENENGOA: Eskoriatzako Udalak arbuia egiten du haustura hidraulikoa edo frackinga erabiltzea ezohiko gasa ustiatzeko eta erauzteko jardueran; eta Eskoriatza "frackingik gabeko eremu" izendatzen du, pertsonen osasuna eta gure ingurumena eta natur baliabideak babeste aldera.

BIGARRENA. Eskoriatzako Udalak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak ematen dizkion eskumen guztiak eta bere esku dauden tresna tekniko, administratibo eta juridiko guztiak baliatuko ditu; bere udalerrian eskatu diren edo eska litezkeen ikerketa- eta erauzte-baimenak geldiarazteko, baldin eta ezohiko gasa lortzeko frackinga erabiltzen badute.

HIRUGARRENA. Eskoriatzako Udalbatzak Eusko Legebiltzarrari eskatzen dio lehenbailehen prestatu eta onar dezala Euskal Autonomia Erkidegoan frackinga debekatzeko lege-proposamen bat.

LAUGARRENA: Eskoriatzako Udalbatzak Espainiako Gobernuari eskatzen dio zuhurtzia printzipioaren errekurtsioa ezar dezala eta, Europar Batasuneko estatu kide den aldetik, debekatu dezala bere eskumen-eremuetan haustura hidraulikoa edo fracking teknikaren erabilera; frogatuta baitago ingurumenean eta pertsonen osasunarengan eragin kaltegarriak izan ditzakeela.

Ezker Anitza-IU

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bakarrik Alkateak hitz egin du, eta jakinarazi du uda aurretik frackingaren ondorioei buruzko informazioa ematera etorritako pertsona batekin egon zela eta horrek jakinarazi ziola duela urte batzuk Eskoriatzan lagin batzuk hartu zirela.

Mozioa bozkatuta, aldeko 8 botorekin eta 2 abstentziorekin (Madinabeitia jauna eta Arkarazo andrea) onartu da.

## **6. EZKER ANITZA-IU-K AURKEZTUTAKO MOZIOA SIRIAN MILITARKI ESKU HARTZEAREN AURKA.**

Juan Luis Merino jaunak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

### **ZIOEN AZALPENA**

Kontuan harturik Siriak bizi duen gerra zibila eta Nazio Batuetatik kanpo Estatu Batuek gidatuta NATOko bere beste herrialde aliatu batzuen laguntzaz, besteak beste Frantzia eta Turkia, esku hartze militarra berehala gertatzeko mehatxua.

Kontuan izanik esku hartze militarrek, NBko segurtasun kontseiluaren bermearekin edo gabe, larrialdi egoerak sortzen dituztela, lehen ere gertatu izan den bezala Yugoeslavia ohia, Iraken, Afganistanen edo Libian.

Kontuan izanik inolako gatazkarik ezin dela konpondu salbatu gura diren herritar zibilak bonbardatuz, eta gatazka konpontzeko bide bezala indarkeria erabiltzeak indarkeria gehiago eta ezegonkortasun gehiago sortzen duela bakarrik, eta horren biktima nagusiak herritar zibilak direla.

Kontuan izanik gerrak gobernu inperialistak presionatzen dituen nazioarteko armagintza negozioaren interesei erantzuten diola, eta ez herritarren egoera humanitarioarekiko benetako ardurari.

Kontuan izanik Iraken suntsipen handiko armak zeudela esanez herri horren aurkako bonbardaketa -napalmezko bonbak, fosforo zurikoak eta uranio jaurtigaiak erabiliz- justifikatzeko bere garaian engainatu zigutenek ez dutela inolako sinesgarritasunik, eta engainatu gintuen herri horrek –Estatu Batuak- orain Al Assaden gobernu salatzeko duela herritar zibilen aurka arma kimikoak erabiltzeagatik.

Kontuan izanik arma kimikoek eragindako 350 hildakoez gain, gatazka horretan dagoeneko 100.000 zibil hil direla ohiko armen eraginez eta ACNURren arabera sei milioitik gora errefuxiatu eta lekualdatu daudela, eta horren ondorioz Siriarekin muga egiten duten herrialdeetan giza krisia sortzen ari dela.

Kontuan izanik Sirian esku hartze militarra izanez gero ondorio konponezinak izango lituzkeela herritar zibilentzako, Iraken, Afganistanen edo, berriki Libian gertatu bezala, eta gainera, kate saila eragin dezakeela Ekialde Hurbileko egoera korapilatsuan.

Kontuan izanik Nazio Batuen Agiriak bere artikuluetan jasotzen duela “Erakundeko kideek, nazioarteko harremanetan, ez dutelako indarra erabiliko edozein estaturen lurraldetasunaren edo independentzia politikoaren aurka” eta, beraz, ulerturik nazioarteko harremanak herrien arteko errespetuan, desarmean eta indarrari eustean oinarritu behar direla gatazka konpontzeko bide bezala.

IU udal taldeak ondorengo erabakiak hartzeko proposatzen dio Udalbatzarrari:

**LEHENENGOA:** Siriako herriari gure elkartasuna adieraztea, duela bi urtetik hona 100.000 hildako eta 6 milioitik gora lekualdatu eta errefuxiatu eragin duen gerra zibila pairatzen ari baita.

**BIGARRENA:** Errepikatzea Siriako gatazka konpontzeko bidea diplomazia bideak agortzea eta bi aldeek, bai Al Assadeko gobernuak bai matxinoek, indarkeriarik ez erabiltzea dela, eta noski, atzerriko esku hartze militarrik ez izatea. Beraz, dei egiten dugu elkarrizketa mahaia berriz osatzeko gatazkari konponbide baketsua emateko Nazio Batuetako idazkari nagusiak eskatu duen bezala.

**HIRUGARRENA:** Behin eta berriz adieraztea mundu osoko suntsiketa handiko ABK arma guztiak (atomikoak, bakteriologikoak eta kimikoak) suntsitzeko beharra, eta Espainiako gobernuari eskatzea bultzatzea nazioarte mailan oraindik ere 1997ko Arma kimikoen gaineko hitzarmena sinatu ez duten estatuei hitzarmen hori sinatzera, horien artean, Siria eta Israel.

**LAUGARRENA:** Ikerketa independente bat eskatzea Siriako herritar zibilen aurka arma kimikorik erabili den egiaztatzeko inolako alderdikeriari gabe; horrelakorik gertatu baldin bada, hori egin dutenak, edozein izanda ere, ekintza kriminal horien zigorrak erantzukizuna bere gain har dezaten.

**BOSGARRENA:** Siriaren aurkako eraso inperialista horren aurka gizarte zibilak deitutako mobilizazio guztietan parte hartzeko dei egitea eta gatazkaren konponbide baketsua exijitzea herrien arteko bakea lortu ahal izateko.

**SEIGARRENA:** Espainiako gobernuari eskatzea ez bakarrik esku hartze militar horretan parte EZ hartzeko, baita ere ez uzteko bere base militarrik eta bere aireko espaziorik Siria erasotzeko asmoa duen inolako naziori.

**ZAZPIGARRENA:** Mozio hau bidaltzea Gobernuko presidenteari, Diputatuen Kongresuko eta Senatuko presidenteei, ganbera bietako talde politikoei, Estatu Batuak, Frantziak eta Turkiak Espainian dituzten enbaxadoreei, Europako Batasuneko presidenteari, Europako Parlamentuko presidenteari, parlamentu horretako talde politikoei eta Nazio Batuetako idazkari nagusiari.

Eskoriatzan, 2013ko irailaren 13an

Mozioa irakurri ondoren, Alkate jaunak hartu du hitza eta adierazi du berak alde bozkatuko duela, baina, baldintza batekin, onartutako mozioa hainbat erakundeei jakinarazi behar denean, mozioaren sustatzaileak ekartzea erakunde bakoitzaren helbidea.

Merino jaunak baldintza onartu du, eta konpromisoa hartu du helbide horiek laster ekartzeko.

Beste inork ez du hitz egin eta bozkatu egin da. Honako emaitza izan da: 8 boto alde eta 2 abstentzio (Madinabeitia jauna eta Arkauz andrea), eta beraz, mozioa onartu da.

**Merino jaunak bilkura utzi du 18:45ean.**

## **7. KIROL JARDUEREN ZERBITZUA KUDEATZEKO KONTRATUA ALDATZEA.**

Kirol arlotik egindako proposamena ikusita, Ezpeleta jaunak labur azaldu duena, ondorengoek hartu dute hitza:

Madinabeitia jaunak galdetu du ea ez den gutxiengo bat finkatu jardueraren bat antolatuko den edo ez erabakitzeko.

Ezpeleta jaunak erantzun dio ezetz, proposamenaren arabera, erabakia kultura batzordearen irizpidearen menpe gelditzen dela, eta uste duela gaia aztertzerakoan batzordekideek logikaz jokatu dutela. Uste du interesgarria dela jardueraren arabera -eta taldea osatzeko pertsona bat edo bi falta badira- batzordeak erabaki ahal izatea jarduera hori antolatu edo ez.

Urrutia jaunak dio aurkeztutako diktamenak forma-akatsa duela bere iritziz, eta horregatik, atzera botatzeko eskatzen duela; eta arrazoi horregatik berak ezin duela alde bozkatu. Honako hau ere esan du: otsailean Rosa Lasagabater kontratatu zen, martxoan kontratuaren kopia eskatu nuen, eta oraindik ez dut jaso, eta uste dut oso garrantzitsua dela. Ondoren, adierazi du gogoeta egiteko beharra dagoela herri honek kirol teknikari bat behar duen edo ez ikusteko. Proposamenaren edukari buruz esan du lehenengo bi paragrafoei buruz ez badu ere ezer esateko, azkenarekin ez dagoela ados, berarentzat ataka bat delako zerbitzua oraindik ere defizitariagoa izateko. Esan du ez zaiola ondo iruditzen irizpide hori, eta deigarria egiten zaiola aldaketak atzeraeragina izatea ekainaren 1etik. Uste du horrekin arazo bat "gatazka gizarteratuz" konpondu gura dela. Bere ustez, hori egiteko arrazoia da ekainean jardueraren bat antolatu zela eta uste zenaren baino jende gutxiagok eman zuela izena, eta orain arazo bat konpondu gura da batzordera eta osoko bilkurara ekarrita. Berriz esan du gauzak ezin direla horrela egin. Bere ustez diktamenak duen forma-akatsa aipatu du berriz, eta hori arrazoitzeko esan du diktamen bat ezin duela kanpoko aholkulari batek sinatu, azken finean, esan du plantillako teknikari ez denak ezin duela sinatu dokumentu hori.

Alegatzen duen forma-akatsari dagokionez, Alkateak zein idazkariak jakinarazi diote ez dagoela forma-akatsik ez dagoelako diktamenik, eta diktamen ez egote hori legez balioztatu dela Udalbatzarrak gai hori gai zerrenda barruan aztertzea berrestu duenean. Alkateak berriz esan du zinegotziek jaso dutena kirol arloaren proposamena dela, baina, ez dela diktamen bat batzorderetik ez datorrelako, quorumik ez zegoenez ez zelako batzorderik egin.

Urrutia jaunak berriz esan du bere ustez diktamenak baliogabe uzten duen akatsa duela, kanpoko aholkulari batek sinatzen duelako.

Eztabaida amaituta, bozkatu egin da, eta Cantero jauna abstenituta, Urrutia jaunak aurka bozkatuta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Bere garaian GOIENA SPORTi esleitutako kirol zerbitzuak emateko kontratua aldatzea ondoren esango den moduan:

*Irailaren 1etik abenduaren 31ra kirol ekintzen diru kudeaketaren ardura udalak hartuko du. Horrela enpresak kirol ekintzak egiteko monitoreak jarriko ditu eta antolaketan parte hartuko du eskaintza lantzen, baina, hemendik aurrera ez du kobratze lanik egingo.*

*Urriaren 1etik aurrera, sorosleen ordutegia kiroldegia ixteko baino ordu erdi lehenago amaitu behar da.*

*2013ko ekainerako atzera eraginarekin, kirol ekintzetan aurrez ezarritako jende kopuru minimorik ez bada lortzen, Udalak enpresari ordainduko dio taldea osatzeko falta den jendearen ordaina. Kultura batzordeak onartuko du zein ekintzak diren tratamendu hori eduki behar dutenak. Helburua kopuru minimoetara heldu ez arren ekintzak aurrera ateratzea da.*

## **8. ARIZMENDI KOOP. ELK. JARRITAKO BERMEA ITZULTZEKO ESKAERA.**

Hezkuntza arloko teknikariak egindako txostena aztertuta Ogasun batzorde informatzaileak egindako erabaki proposamena ikusi da.

Kontuan izanik kontratu bien berme epea amaitu dela eta biak egoki bete direla, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

2008an eta 2012an 0 eta 3 urte arteko haur eskola zerbitzua kudeatzeko esleitutako kontratuengatik Arizmendi Koop. Elkartek jarritako bermeak itzultzea. Berme horiek 566,36 eta 693,03 eurokoak dira.

## **9. 15. KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.**

Kredituak aldatzeko 15. espedientea irakurri da. Kreditu aldaketa hori kreditu gehigarri bidez egingo da eta eragina du UDAL honetako aurrekontuan.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, bototara jarri da proposamena.

Urrutia jauna abstenituta eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.- UDAL** honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 15. espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera:

PARTIDA				
0102.227.434.00.15	KONTRATUA:F			
0101.643.432.00.01	PROIEKTUAK II			
0501.227.442.10.13	MANKOMUNITZ			
0406.227.452.20.16	KIROLDEGIKO			
0402.221.455.20.03	GASA:ELSKAI			

### KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarrerren kontzeptuak edota gastuen partidak	Baliabidearen kontzeptua (11)	Sarrera handiagoak / gastuetako bajak	Baliabidearen partziala
0201.870.000.00.01	Diruzaintzaren gerakina: Kreditu gehigarriak		351.139,02
<u>GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA</u>			<b>351.139,02€</b>

**Bigarrena.-** Jendaurrean jartzea hamabost egunez nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez balego, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

#### 10. GALDE-ESKEAK.

Urrutia jaunak banderen gaia nola dagoen galdetu du.

Alkateak jakinarazi dio indarrean dagoen araudiaren irizpideen arabera banderen kokapena aldatzeko errekerimendu judizialaren zain.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 19:00etan. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.**





## BERTARATUAK- ASISTENTES

### Alkate-Udalburu Ordea

María Arantzazu Iregui Villar

### Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar  
Jose María Herce Isasmendi  
Igor Ezpeleta Oregi  
Maider Landa Ruiz de Azua  
Aitor Urrutia Oianguren  
Iñaki Madinabeitia Elorza  
Rosario Arkauz Arkauz  
Juan Luis Merino Sanabria.  
Jose Luis Cantero Morcillo

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamahiruko irailaren 24an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Petralanda jauna

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 25 de junio de 2013, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste el Sr. Petralanda.

## **1. APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.**

A falta de su traducción al euskera, no se presentan actas para su aprobación.

## **2. COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA.**

Se informa de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 20 de setiembre de 2013 haciéndose entrega de una copia del extracto de las mismas.

Se da cuenta de forma expresa de la resolución que a continuación se transcribe:

### **RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA**

**NÚMERO:** B 13/00974

**FECHA:** 19/09/2013

**GAIA:** MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS Nº 16: INCREMENTO DE CRÉDITOS

**EXPEDIENTE:** 2013KKRA0013

**ASUNTO:** Aprobación del expediente nº 16 de modificación de créditos mediante créditos adicionales.

Examinado el expediente de modificación de créditos mediante créditos adicionales que afecta al presupuesto de este Ayuntamiento.

Según el informe emitido por la Secretaria-Interventora, dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos y trámites establecidos en el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Teniendo en cuenta lo anteriormente mencionado y en uso de las competencias otorgadas por el artículo 34.3 de la Norma Foral y el artículo 6.1 de la Norma Ejecución Presupuestaria aprobada para el ejercicio del 2013.

### **RESUELVO**

Primero.- Aprobar el expediente de modificación de créditos mediante créditos adicionales que afectan al presupuesto del ejercicio actual de este Ayuntamiento según la propuesta y el resumen de capítulos siguiente:

#### **CRÉDITOS ADICIONALES**

<b>Capítulo</b>	<b>Denominación</b>	<b>Incremento</b>
2	Compra de bienes comunes y servicios	5.500,00
<b>TOTAL DEL INCREMENTO...</b>		5.500,00

#### **RECURSOS QUE LOS FINANCIAN**

<b>Capítulo</b>	<b>Denominación</b>	<b>INCREMENTOS</b>
8	Activos financieros	5.500,00
<b>TOTAL</b>		5.500,00 €

**Segundo.-** Dar cuenta de esta resolución al pleno en la siguiente sesión.

En Eskoriatza, a 19 de septiembrejuno de 2013. EL ALCALDE

### **3. RATIFICACIÓN DE LA INCLUSION DE ASUNTOS DENTRO DEL ORDEN DEL DIA.**

Por unanimidad de todos los corporativos presentes, se acuerda ratificar la inclusión de los siguientes asuntos en el orden del día:

TOMA DE POSESION DEL CARGO DE CONCEJALA: DÑA. MAIDER LANDA RUIZ DE AZUA

MODIFICACION DEL CONTRATO DE GESTION DE ACTIVIDADES DEPORTIVAS.

SOLICITUD DE DEVOLUCION DE FIANZAS DEPOSITADAS POR ARIZMENDI KOOP. ELK.

EXPEDIENTE DE MODIFICACION DE CREDITOS Nº 15.

### **4. TOMA DE POSESION DEL CARGO DE CONCEJALA: DÑA. MAIDER LANDA RUIZ DE AZUA**

Dada cuenta al Pleno de que ha sido formulada la declaración de bienes patrimoniales, y de causas de posibles incompatibilidades y actividades que puedan proporcionar ingresos económicos, a los efectos de su inscripción en el correspondiente registro de intereses, tal como está previsto en el artículo 75 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, y cumplidos los trámites legales de toma de posesión del cargo de concejala el Pleno da posesión de su cargo a Dña. Maider Landa Ruiz de Azua.

**A solicitud del Sr. Merino, el alcalde modifica el orden de los asuntos a tratar y somete a debate y votación las mociones presentadas a instancia de Ezker Anitza-IU.**

### **5. MOCIÓN PRESENTADA A INSTANCIA DE EZKER ANITZA-IU SOBRE EL RECHAZO A LA TÉCNICA DE LA FRACTURA HIDRÁULICA O FRACKING.**

El Sr. Juan Luis Merino lee la parte dispositiva de la moción cuya texto íntegro se transcribe a continuación:

#### **EXPOSICION DE MOTIVOS**

La fractura hidráulica o fracking es una técnica para la extracción de gas no convencional que plantea en la actualidad importantes interrogantes sobre la salud de las personas y sobre las afecciones al medio ambiente, tanto en los usos agrícolas del suelo, como las relacionadas con el medio natural, fundamentalmente por la posibilidad real de contaminación de los acuíferos subterráneos y, a partir de ellos, del agua superficial dada la inyección de productos tóxicos y contaminantes que resultan imprescindibles en esta técnica. Además representa una amenaza sobre la seguridad en materia de riesgos geológicos a raíz de los movimientos sísmicos que podrían producirse.

El fracking supone también una alta ocupación del territorio dada la cantidad de pozos que deberían realizarse para optimizar la explotación, la necesidad de crear balsas para acumular el agua contaminada y el elevado tránsito de vehículos con cisternas para evacuar el gas. Este modelo de desarrollo tendría graves impactos en las actividades que mantienen el medio rural, como la agricultura, ganadería y el turismo, además de las afecciones al medioambiente.

Estas circunstancias hacen incompatible el fracking con los objetivos planteados por Europa para un modelo de desarrollo sostenible, incumpliendo varias normas, especialmente la Directiva Marco del Agua. Un informe elaborado por la Comisión de Medio Ambiente, Salud Pública y Seguridad del Parlamento Europeo manifiesta los riesgos que puede generar la utilización de esta técnica, motivando que varios Estados de la Unión Europea hayan aprobado una moratoria o prohibición. En España, la Comunidad Autónoma de Cantabria y La Rioja ya han legislado la prohibición del fracking, y otras están en tramitación de Proposición de Ley con la misma finalidad.

Por todo ello, y habida cuenta de los permisos de investigación que se han solicitado en Euskadi y de la importante reacción social que han generado, podemos decir que, en la actualidad, existe una preocupación social importante por los riesgos que supone la puesta en marcha de la extracción de gas no convencional mediante esta técnica, que de implantarse en nuestro territorio, conllevaría un irreparable daño a nuestra Comunidad Autónoma, en especial en la seguridad sobre la salud de las personas y sobre una de nuestras principales señas de identidad, como es nuestro rico patrimonio natural.

Los ayuntamientos afectados se han declarado como zonas libres de fracking, así lo han hecho la practica totalidad de los municipios alaveses, al ser Araba el territorio más amenazado por esta práctica. Además numerosos ciudadanos y ciudadanas han instado al Parlamento Vasco a que prohíba esa práctica a través de iniciativas legislativas populares.

Ante esta situación cabe recordar que la Comunidad Autónoma Vasca tiene competencias para regular esta actividad y para acordar una moratoria en función del principio de precaución. Sin embargo el PNV, PSE, PP y UPyD en el Parlamento Vasco se han negado incluso a prohibir el fracking en áreas protegidas, contradiciendo la postura adoptada por esos mismos grupos políticos en los municipios afectados. Asimismo el Gobierno de España ha prohibido incluso la celebración de una consulta popular al respecto en el municipio de Kuartango.

Por todo lo anterior el pleno del ayuntamiento asume los siguientes:

#### **ACUERDO**

PRIMERO: El Ayuntamiento de Eskoriatza manifiesta su rechazo a la utilización de la técnica de la fractura hidráulica o fracking en la actividad de explotación y extracción de gas no convencional, y declara a Eskoriatza “municipio libre de fracking”, como garantía de la salud de las personas, protección de nuestro medio ambiente y los recursos naturales.

SEGUNDO: El Ayuntamiento de Eskoriatza aprovechará todas las competencias que le han sido otorgadas a través de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, y todos los instrumentos técnicos, administrativos y jurídicos que estén a su alcance para paralizar los permisos de investigación y extracción que se hayan solicitado o pudieran solicitarse en su término municipal que utilicen el fracking para la obtención de gas no convencional.

TERCERO: El Pleno del Ayuntamiento de Eskoriatza insta al Parlamento Vasco a elaborar y aprobar, a la mayor brevedad, un proyecto de Ley que prohíba en la Comunidad Autónoma Vasca el fracking.

CUARTO: El pleno del Ayuntamiento de Eskoriatza insta al Gobierno de la Nación a aplicar el “recurso al principio de precaución” prohibiendo como Estado Miembro de la Unión Europea en sus ámbitos competenciales el empleo de la técnica de la fractura hidráulica o fracking por demostrarse sus nefastos efectos potenciales sobre el medio ambiente y la salud de las personas.

Ezker Anitza - IU

Abierto el turno de intervenciones sólo participa el Sr. Alcalde, quien informa que antes del verano recibió a una persona que informó sobre las consecuencias del fracking y de que en Eskoriatza hace años ya se hicieron algunas catas.

Votada la moción, con el resultado de 8 votos a favor y 2 abstenciones (Sr. Madinabeitia y Sra. Arkarazo) la moción es aprobada.

#### **6. MOCIÓN PRESENTADA A INSTANCIA DE EZKER ANITZA-IU EN CONTRA DE LA INTERVENCIÓN MILITAR EN SIRIA.**

El Sr. Juan Luis Merino lee la parte dispositiva de la moción cuyo texto íntegro se transcribe a continuación:

#### **EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

Teniendo en cuenta la guerra civil en Siria y la amenaza de una inminente intervención militar fuera del mandato de Naciones Unidas liderada por los Estados Unidos junto con algunos de sus países aliados de la OTAN como Francia o Turquía.

Teniendo en cuenta que las intervenciones militares, estén o no avaladas por el Consejo de Seguridad de la ONU, crean situaciones de emergencia, como ya ocurrió en la guerra de la antigua Yugoslavia, Irak, Afganistán o Libia.

Teniendo en cuenta que ningún conflicto puede solucionarse con el bombardeo a la población civil que se pretende salvar, y que el uso de la violencia como mecanismo de resolución de conflictos sólo genera más violencia y más inestabilidad, siendo la población civil la víctima principal de ello.

Teniendo en cuenta que la guerra responde al negocio de las multinacionales armamentísticas que presionan a los gobiernos imperialistas, y no a una verdadera preocupación por la situación humanitaria de la población.

Teniendo en cuenta la falta absoluta de credibilidad de aquellos que en su momento nos engañaron diciendo que en Irak existían armas de destrucción masiva para justificar el bombardeo a ese país, utilizando bombas de napalm, fósforo blanco y proyectiles de uranio empobrecido; siendo este mismo país, -Estados Unidos-, el que ahora acusa al gobierno de Al Assad de utilizar armas químicas contra la población civil.

Teniendo en cuenta que además de las 350 víctimas causadas por el uso de armas químicas, el conflicto se ha cobrado ya la vida de 100.000 civiles a causa de las armas convencionales y más de seis millones de refugiados y desplazados según cifras de la ACNUR, lo que está generando una crisis humanitaria en los países fronterizos con Siria.

Teniendo en cuenta que la intervención militar en Siria tendrá consecuencias irreparables para la población civil, como ocurrió en Irak, Afganistán o recientemente en Libia, y que además puede tener un efecto en cadena en la ya complicada situación en Oriente Próximo.

Teniendo en cuenta que la Carta de Naciones Unidas en su articulado recoge que “los miembros de la Organización, en sus relaciones internacionales se abstendrán de recurrir al uso de la fuerza contra la integridad territorial o la independencia política de cualquier estado”; entendiéndose por lo tanto que las relaciones internacionales deben basarse en el respeto entre los pueblos, el desarme y la contención del uso de la fuerza como mecanismo de resolución de conflictos.

El Grupo Municipal de IU propone al Pleno la adopción de los siguientes acuerdos:

**PRIMERO:** Solidarizarnos con el pueblo de Siria, que sufre desde hace dos años una guerra civil que se ha cobrado ya más de 100.000 víctimas mortales y más de 6 millones de desplazados y refugiados.

**SEGUNDO:** Reiterar que la solución al conflicto en Siria debe pasar por agotar las vías diplomáticas y por la contención del uso de la fuerza por ambas partes, tanto por parte del gobierno de Al Assad como por parte de los rebeldes, y por supuesto, por la no intervención militar extranjera. Llamamos, por lo tanto, a volver a la mesa de diálogo con el objetivo de encontrar una solución pacífica al conflicto tal y como ha reclamado el Secretario General de Naciones Unidas.

**TERCERO:** Insistir en la necesidad de destruir todo el arsenal de armas de destrucción masiva ABQ (atómico, bacteriológico y químico) a nivel mundial, y pedir al gobierno español que exhorte a nivel internacional a firmar la Convención sobre Armas Químicas de 1997 a todos aquellos Estados que aún no lo han hecho, entre ellos Siria e Israel.

**CUARTO:** Exigir una investigación independiente que realice una verificación imparcial del uso de armas químicas contra población civil Siria, con el objetivo de que sus autores, sean quienes sean, asuman la responsabilidad penal de estos actos criminales.

**QUINTO:** Hacer un llamamiento a apoyar todas la movilizaciones de la sociedad civil contra este ataque imperialista contra Siria y exigir una solución pacífica del conflicto para conseguir la paz entre los pueblos.

**SEXTO:** Exigir al Gobierno español que, no solo NO participe en esta intervención militar, sino que no permita el uso de sus bases militares ni de su espacio aéreo a ningún país que pretenda atacar a Siria.

**SÉPTIMO:** Remitir esta moción al Presidente del Gobierno, a los Presidentes del Congreso de los Diputados y del Senado, así como a los grupos políticos de ambas cámaras, a los embajadores de los Estados Unidos, Francia y Turquía en España, al Presidente de la UE, al Presidente del Parlamento Europeo, así como a los grupos políticos del mismo y al Secretario General de Naciones Unidas.

En Eskoriatza, a 13 de Septiembre del 2013

Tras la lectura toma la palabra el Sr. Alcalde y manifiesta que él va a votar que sí, pero con una condición, que cuando una moción aprobada se tenga que notificar a distintos organismos y entidades sea el promotor de la moción el que facilite la dirección de cada uno de ellos.

El Sr. Merino acepta la condición y se compromete a facilitar en breve dichas direcciones.

No hay más intervenciones y se procede a votar. Con el resultado de 8 votos a favor y 2 abstenciones (Sr. Madinabeitia y Sra. Arkauz) la moción de aprobada.

**A las 18:45 horas el Sr. Merino abandona la sesión.**

## **7. MODIFICACION DEL CONTRATO DE GESTION DE ACTIVIDADES DEPORTIVAS.**

Vista la propuesta que se eleva desde el área de deportes, de la que el Sr. Ezpeleta hace un breve resumen, se producen las siguientes intervenciones.

El Sr. Madinabeitia pregunta si no se ha fijado un mínimo para determinar que la actividad se organice.

El Sr. Ezpeleta le responde que no, que según la propuesta la decisión queda a criterio de la comisión de cultura y que presume que cuando se trate el asunto los miembros de la comisión actuarán con lógica. Considera que resulta de interés que en atención a la actividad, y ante la falta de una o dos personas para formar el grupo, la comisión pueda decidir el organizar dicha actividad.

El Sr. Urrutia dice que a su entender el dictamen que se presenta tiene un defecto de forma, y que por eso pide que se eche para atrás el mismo; que por ese motivo el no puede votar a favor. Sigue diciendo: en febrero se contrató a Rosa Lasagabaster y en marzo pedí una copia del contrato y todavía no se me ha facilitado, y creo que es muy importante. A continuación, manifiesta la necesidad de hacer una reflexión de si este pueblo necesita o no un técnico de deportes. En relación al contenido de la propuesta, dice que, si bien no puede poner objeción a los dos primeros párrafos, con el último no puede estar de acuerdo porque para él es un coladero para que el servicio sea todavía más deficitario. Dice no parecerle bien ese criterio y que lo que le llama la atención es que la modificación sea con efectos retroactivos a 1 de junio. Opina que de lo que se trata es de solucionar un problema "socializando el conflicto". Para él eso responde a que en junio se organizó alguna actividad en la que se apuntó menos gente de la que se pensaba y ahora se trata de solucionar un problema pasando por la comisión y trayéndolo al pleno. Insiste en que no se pueden hacer las cosas así. Vuelve a retomar la cuestión del "defecto de forma" que dice tiene el dictamen y lo razona alegando que un dictamen no puede ser firmado por quien es un asesor externo, viene a decir que quien no es técnico de plantilla no puede firmar ese documento.

En cuanto al defecto de forma que alega, tanto el alcalde como la secretaria le informan que no existe como tal porque no hay dictamen, así como que la omisión del dictamen se ha validado legalmente con la ratificación que antes ha hecho el pleno de tratar el asunto dentro del orden del día. El Alcalde insiste en que lo que se ha facilitado a los concejales es la propuesta del área de deportes, pero que no es un dictamen porque no viene de la comisión porque ésta, a falta de quorum, no se constituyó.

El Sr. Urrutia insiste en que a su entender se trata de un dictamen con un vicio invalidante porque lleva la firma de un asesor externo.

Terminado el debate, se procede a votar. Con la abstención del Sr. Cantero, el voto en contra del Sr. Urrutia y el voto favorable del resto de los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

Aprobar en los siguientes términos la modificación del contrato de prestación de servicios deportivos adjudicado en su día a GOIENA SPORT :

*Irailaren 1etik abenduaren 31ra kirol ekintzen diru kudeaketaren ardura udalak hartuko du. Horrela enpresak kirol ekintzak egiteko monitoreak jarriko ditu eta antolaketan parte hartuko du eskaintza lantzen, baina, hemendik aurrera ez du kobratze lanik egingo.*

*Urriaren 1etik aurrera, sorosleen ordutegia kiroldegia ixteko baino ordu erdi lehenago amaitu behar da.*

*2013ko ekainerako atzera eraginarekin, kirol ekintzetan aurrez ezarritako jende kopuru minimorik ez bada lortzen, Udalak enpresari ordainduko dio taldea osatzeko falta den jendearen ordaina. Kultura batzordeak onartuko du zein ekintzak diren tratamendu hau eduki behar dutenak.. Helburua kopuru minimoetara heldu ez arren ekintzak aurrera ataratzea da.*

#### **8. SOLICITUD DE DEVOLUCION DE FIANZAS DEPOSITADAS POR ARIZMENDI KOOP. ELK.**

Vista la propuesta de acuerdo que se eleva desde la Comisión Informativa de Hacienda previo informe emitido por el técnico del área de educación y

Considerando que ha vencido el plazo de garantía de ambos contratos y se ha cumplido satisfactoriamente los referidos contratos, el Pleno por unanimidad ACUERDA:

Devolver las fianzas depositadas por Arizmendi Koop. Elkartea en garantía de los contratos adjudicados en el año 2008 y año 2012 para la gestión del servicio de escuela infantil municipal para el ciclo de 0 a 3 años. Dichas fianzas ascienden respectivamente a la cantidad de 566,36 euros y 693,03 euors.

#### **9. EXPEDIENTE DE MODIFICACION DE CREDITOS Nº 15.**

Dada lectura del expediente de Modificación de Créditos Nº15, mediante Créditos Adicionales que afecta al Presupuesto de este **AYUNTAMIENTO**.

Se da cuenta del informe emitido por la secretaria-interventora quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos y trámites establecidos en el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa.

Visto el informe emitido desde secretaría intervención, se somete a votación la propuesta.

Con la abstención del Sr. Urrutia y el voto favorable del resto de los corporativos presentes el Pleno, ACUERDA:

**Primero.-** Aprobar el expediente de Modificación de Créditos mediante Créditos Adicionales, nº 15 que afecta al Presupuesto de este **AYUNTAMIENTO** del corriente ejercicio, conforme a la propuesta formulada y siguiente resumen por Capítulos:



PARTIDA				
0102.227.434.00.15	CONTRATO: M			
0101.643.432.00.01	REDACCION DI			
0501.227.442.10.13	MANCOMUNID			
0406.227.452.20.16	GESTION DE A			

**PROPUESTA DE FINANCIACIÓN DE CRÉDITOS ADICIONALES**

Concepto de ingresos o partidas de gasto	Concepto del recurso (11)	Incremento de ingresos / bajas de gasto	Parcial del recurso
0201.870.000.00.01	Remanente de tesorería: créditos adicionales		351.139,02
<b>TOTAL DEL INCREMENTO DE GASTO</b>			<b>351.139,02€</b>

**Segundo.-** Que se someta a información pública por el plazo de quince días a efectos de reclamaciones. De no presentarse reclamaciones este acuerdo devendrá definitivo, debiendo darse a este expediente los restantes trámites iguales a los establecidos para la aprobación del Presupuesto General.

**10. RUEGOS Y PREGUNTAS.**

El Sr. Urrutia pregunta cómo está el asunto de las banderas.

El alcalde le informa que a espera del requerimiento judicial para modificar la colocación de las mismas según criterios de la normativa vigente.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 19:00 horas.  
De todo lo cual como Secretaria doy fe.**